

Enpresentzako dosierra

Bizi Parkea **KLUBA**rekin, aisia,
kultura, kirola eta osasunaren
eremu berri bat, kanpus
guztietan garatuko diren jarduera
anitzen bitartez gauzatuko dena.



parke.eus/KLUBA

Egitasmoa:



Parkeko enpresa hori, ¿ongi etorri **KLUBA**ra!

Euskadiko Parke Teknologikoak Be Parke KLUBA sortu du, Parkeko **660 enpresa** eta **21.000 profesional** baino gehiagori zuzenduriko aisia, kultura, kirola eta osasunaren eskaintza berria. Beraz, Parkeko komunitatea osatzen dugunok, kanpusetik aldendu gabe gure zaletasunez disfrutatzeko aukera izateaz gain, gure artean lotura berriak sortzeko abagunea dugu jada.

KLUBAren helburua parke teknologikoak bizitza-ekosistemetan bilakatzea da, pertsonentzako osasungarriak diren sozializazio- eta dibertsio-eremuetan, talentuaren erakarpen eta fidelizazioan laguntzarekin batera, talde-lana sustatzeko baliagarria gertatuz.

Eta Parkeko enpresa gisa, komunitate honetako partaide aktibotzara gonbidatzen zaitugu: **BeParke KLUBA**.




**PERTSONAK ELKARTU NAHI DITUGU,
MODU OSASUNGARRIAN KONEKTATU,
SOZIALIZATU ETA DIBERTITZEKO
ESPERIENTZIAK ESKAINIZ"**



BeParke **KLUBA**, bizi Parkea!

KLUBAk urte guztian zehar eta Parkeko kanpus guztietan jarduera ugari eskaintzen ditu, haietako edozeinen parte hartzeko aukera zabaltzen duelarik, lantokia edozein dela ere.

KLUBAk egutegi dinamikoa du, urtean zeharreko jarduera berriak gaineratzen joango zaizkiolarik.



K Aisia eta kultura

- » Parkea Musik Fest
- » Dantza ikastaroak
- » Dastatzeak: ardoa, garagardoa...
- » Top argazki eta bideoak zure mugikorrarekin
- » Mus txapelketa
- » Tupperrerako sukaldaritza Basque Culinary Centerren eskutik
- » Team Building Masterchef
- » Ginkana
- » Kafearekin batera hizkuntzen praktika: Mintzalagun / Conversational Partner

Eta askoz ere gehiago



K Kirola eta osasuna

- » Orientazio zirkuituak
- » Padel txapelketa
- » Frontenis txapelketa
- » Futbol7 txapelketa
- » Golf txapelketa
- » Hastapena + Golf handicap
- » Jarrera berreziketa
- » Mindfulness
- » Patinetan irteerak
- » Running
- » Nordic Walking
- » Mendi-irteerak
- » Running, txirrindularitza, igeriketa eta triatloirako online entrenamendu-planak

Eta askoz ere gehiago

Parkeko enpresak ere **KLUBA**ko eragile aktiboak izan daitezke

Partaide izateko aukera ezberdinak eskaintzen ditu KLUBAk, erakunde bakoitzak hobekien egokitzen zaion modalitatearen alde egin dezan.

Jarraian jasotzen diren aukeraren baten alde egiten duten enpresek, presentzia nabarmena izango dute KLUBAren komunikazio-baliabideetan. Gainera enpresak lagunduko du...

- » aisia, kultura, kirola eta osasuna erakundeko pertsonen artean sustatzen.
- » pertsonekin konprometituriko enpresa gisa agertzen.
- » Parkeko pertsonentzako sozializazio- eta dibertsio-eremu osasuntsuak eraikitzen.



ENPRESEN PARTE-HARTZEAK PARKEKO KANPUSAK BIZITZA-EKOSISTEMETAN BILAKATZEN LAGUNDUKO DU"

Nire enpresa zein modutan izan daiteke BeParke KLUBAko eragile aktiboa?

1. Jardueretako izen-emateak ordainduz:

KLUBAk antolaturiko jarduera anitzetarako izen-ematea ordaindu ahal izango du, erakundeko nahi adina pertsonena.

Parkek enpresei animatzen die bere langileen parte-hartzea sustatu dezaten, eta Parkeko pertsonen arteko harremana bultzatu dezaten, modu horretan, elkarri-zketa eta sozializaziorako eremu berriak sortuz.

Nola burutzen da izen-ematea enpresa gisa?

1. **parke.eus/kluba** KLUBAko webgunean sartu.
2. Izen-emateak zabalik dituzten jarduerak kontsultatu.
3. Zure erakundeko pertsonentzako sarreraren erosketa burutu.

Ekintza hau puntuala da eta nahi adina alditan errepikatu ahal da urtean zehar.

2. Urteko bazkide-kuota ordainduz:

Erakundeko nahi adina pertsonen bazkide-kuota ordaindu ahal izango du, eta bide batez, osasuna eta dibertsioa oparitu.

Pertsona bazkideek honako onurak jasoko dituzte:

- » Ongietorriko oparia.
- » %50eko beherapena jarduera guztien izen-emateetan.
- » Bazkideentzako jarduera eta abantaila bereziak.
- » Bazkideentzako zozketa bereziak.
- » Running, txirrindularitza, igeriketa eta triatloirako entrenamendu-plana.
- » BeParkeKLUBA Appa.

Hasierako eskaintza: 48 €/urte.

%50eko beherapena maiatzaren 31 aurretik egindako harpidetzetan!

3. Enpresa babesle izanda:

Enpresak KLUBAko jarduera bakarra edo hainbat babestu ahal izango ditu, Parke komunitatean gustatuko litzaiokeen irismena lortuz.

Helburua:

- » Parke komunitatean nabarmendu eta ikusgarritasuna eskuratzea.
- » Bere erakundeko pertsoneri abantailak eskaintzea.
- » KLUBAko erabiltzaile diren pertsoneri enpresako produktu eta zerbitzuak eskaintzeko aukera izatea.

Babesletzarako Prezio eta Baldintzak kluba@parke.eus
helbidera idatziz eskatu.

